

“ALTZASU”

GASTRONOMI ETA MENDI-ELKARTEAREN

ESTATUTUAK

LEHEN KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- 1964ko ekainaren 17an eratu eta 1964ko eta 1965eko abenduaren 28an legeztatu zen (Erregistroko zk.: AS.R.P.G.75) Bergarako irabazi asmorik gabeko **“ALTZASU” Gastronomi eta Mendi Elkartearen** egungo Estatutuak aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. Eta 10,13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

PROPOSATZEN DIREN HELBURUAK

2. artikulua.- Irabazi asmorik gabeko Elkartea honen helburuak gastronomia eta mendia dira bakarrik, eta, bereziki, bazkideei elkarte-egoitza bat eskaintzea, haien biltoki izan dadin.

Aipatutako helburuak iristeko, ezarrita dauden lege-betebeharrak beterik lehenik, ondoko hauek egingo dira:

- Bazkideen eta haien senitartekoen gastronomi eta mendi kultura bultzatu.
- Era guztietako ekintzak eta hitzarmenak egin, hauek Elkarteko helburuekin bat baldin badatoz.

Aurreko atalean deskribatutako jarduerari kalterik egin gabe, Elkartek, bere helburuak iristeko, hauek ere egin ditzake:

- Era guztietako ekonomia jarduerak, bere helburuak gauzatzeko edo horretarako bitartekoak eskuratzeko.
- Era guztietako ondasunak erosi eta eduki edozein tituluz, nahiz era guztietako ekintzak eta hitzarmenak egin, beti ere elkartearen helburuekin bat datozelarik.
- Era guztietako ekintzak egin, beti ere Legeen edo Estatutuen arabera.

Debekatuta egongo dira elkarteko elkarbizitza normala apurtuko luketen era guztietako ekitaldi eta bilera politiko, erlijioso eta sindikalak.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.- Elkartea honen egoitza nagusia Bergarako Elosuko gainean egongo da. Elkartek beste egoitza edo barne batzuk ere eduki ditzake Euskal Autonomia Erkidegoan zein handik kanpo, Ezohiko Batzar Orokorrak erabakitzen badu. Batzar Orokorrak erabakiko du Elkartearen egoitza eta gainerako barneak aldatzea, eta, hala eginez gero, Zuzendaritza Batzordeak helbide berria jakinarazi beharko dio Elkarteen Erregistroari.

LURRALDE ESPARRUA



Nahi izanez gero, J0D0Z-T22E7-CQ52 bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa dela ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T22E7-CQ52 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

4. artikulua.- Elkartea Gipuzkoako lurraldean arituko da nagusiki.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta Ezohiko Batzar Orokorraren akordioz bakarrik desegin da, VI. artikuluan xedatutakoaren arabera edo Legeetan aurreikusitako edozein kausagatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen gobernuan eta administrazioan ondoko organo kolegiatuak arituko dira:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo gorentzat.
- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko organo kolegiatutzat.
- Lehendakarien Batzordea (hots, azken hamar urtean Zuzendaritza Batzordean lehendakari aritu direnak), organo aholku-emaile eta kontsultarakotzat.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra (bazkide guztiez osatua) da bazkide guztien nahia adierazten duen organoa.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkarrekin desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organismoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, urteko lehen hiru hileen barruan, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da Batzar Orokorra ezohiko eran, Zuzendaritza Batzordearen beraren kabuz, edo bazkideen herenaren eskariz edo Lehendakarien Batzordearen eskariz (26. artikuluan azaltzen den eran), aurretik arrazoiak eta helburuak azaltzen direla, eta, kasu guztietan, ondoko gaiak erabaki behar direnean:

- a) Estatutu aldaketak.
- b) Elkartea desegitea.

11. artikulua.- Batzar Orokorren deiak, ohikoak edo ezohikoak, idatziz egin behar dira, tokia, data, ordua eta Gai-zerrenda garbi ipintzen direla. Deiaren eta Batzarra lehen deian egiteko izendatutako egunaren artean 15 eguneko tarte utzi behar da gutxienez. Nahi izanez gero, ipin daiteke, badagokio, Batzar Orokorra bigarren deian egiteko data ere, baina ezin da ordu erdia baino tarte txikiagoa utzi bi bileren artean.

12. artikulua.- Batzar Orokorrak, bai ohikoak bai ezohikoak, lehen deian legez osatzeko, aski da bazkideen erdiak gehi bat agertzea, berak edo ordezkariak, eta bigarren deian osatzeko, nahikoa da edozein bazkide kopuru.

Bazkideek beste edozein bazkideri eman diezaiokete esku, hark Batzar Orokorretan ordezkari ditzan. Ordezkatzeko eskari hori idatziz eman behar da, eta agiri horrek Batzarra hasi baino gutxienez ordu erdi bat lehenago egon behar du Batzarreko Idazkariaren esku. Elkarrekin bere egoitza daukan herritik kanpo bizi diren bazkideek postaz bidal dezakete ordezkatzeko-agiria. Bazkide bakoitzak 5 bazkide ordezkari ditzake gehienez.

13. artikulua.- Batzar Orokorren akordioak boto gehiengoz hartuko dira. Agertu diren bazkide aktibo ez erretiratuak erdia gehi bat jotzen da gehiengo, eta berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordean Lehendakari bat, Idazkari bat, Lehendakariorde bat, Diruzain bat eta, gehienez, 8 bokal dira. Zuzendaritza batzordeak beste kargu batzuk sortzeko ahalmena izango du baldin eta beharrezkoa dela ikusten badu – bodegazaina, obrak, erosketen arduraduna, garbitasun arduraduna - kargu hauen banaketa bokalen artean egingo da.

Hilean behin bildu behar dute bederen, eta Elkarteko jardueren ibilera onak eskatzen duen guztietan.

15. artikulua.- Baldin eta deitutako hiru bilera huts egiten badituzte segidan, edo lau, aldizka, zuritu gabe, Zuzendaritza Batzordeko kideek zigorra jasoko dute.

16. artikulua.- Irteten den Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrari Zuzendaritza Batzorde berriko kideak proposatuko dizkio eta berauek eta berauen karguak onartu beharko ditu Batzar Orokorrak. Kargu horiek bi urte iraungo dute (Batzarrak berariaz ezeztatzen ez baditu), eta berriro hautatu daitezke betirako aurrez hautagaiak luzapena onartzen badu.

Aipatutako karguetatik, urte batean 5 berrituko dira, eta hurrengoan, 6.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko izateko, ondokoak bete behar dira:

- a) Estatutuetan aurreikusitako eran izan hautatua.
- b) Elkarteko Bazkide izan (edo haren ezkontide, bazkideak bere nahiaren gainetik ezin duenean izan).
- c) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun arrazoirik ez izatea.

18. artikulua.- Behin Batzar Orokorrak hartarako hautatu ondoren eta hura hartaz jabetzean bereganatuko da Zuzendaritza Batzordeko kidearen kargua.

Karguak dohainik izango dira, nahiz eta Batzar Orokorrak zenbait dieta eta gastu ordaintzea onar dezakeen batzuetan.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Agintaldia amaitzean.
- b) Dimititzean, beti ere Zuzendaritza Batzordeak kasua justifikatuta dagoela deritzenean.
- c) Bazkide izateari uztean edo ezgai bihurtzean.
- d) Batzar Orokorrak kargua ezeztatzean, Estatutu hauetako 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- e) Hiltzean.

Kargu-uztea a) atalean aurreikusitako kausagatik gertatzen denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehen Batzar Orokorra egin arte, zeinek kargu berriak aukeratuko baititu.

Kargu-uztea b), d), e) eta f) ataletako kausengatik denean, aldiz, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du postu hutsa, norbait behin-behineko izendaturik. Izendatze hori Batzar Orokorrari aurkeztuko zaio, berrets edo ezezta dezan, eta, azken kasuan, dagokiona izendatuko da.

Organo honen, hots, Zuzendaritza Batzordearen osaketan izaten diren aldaketa guztiak Elkartearen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak hauek dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Orokorrak ezarritako ildotik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteak egin beharreko jarduerak programatzea.
- c) Urteko gastuen eta sarreraren aurrekontua aurkeztea, onartzeko, Batzar Orokorrari, bai eta aurreko urteko kontuak ere. Baita ere, Batzar Orokorraren onarpena izan beharko dute hurrengo urterako aurreikusten diren inbertsioek.
- d) Batzar Orokorraren bileren Gai-zerrenda egitea, eta ohiko eta ezohiko Batzar Orokorretarako deiak erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamenak eta iradokizunak entzutea, eta haiei dagozkien urratsak egitea.
- f) Sukaldea, tresneria, kontsumo-gaiak etab. erabiltzeko tarifak ezartzea, kostuari halako pittin bat gehitzen zaiola zuhurki. Ateratzen den irabazia kuotei eta gainerako sarrerei gehituko zaie, elkarteko osagaiak eta tresneria mantentzeko eta hobetzeko.
- g) Kontsumitutakoak eta erabilitako zerbitzuak ordaintzeko era arautzea, bazkideen esku ipintzen direla ordainketa horiek egiteko bitartekoak.
- h) Elkartearen ibileran eta Barne Erregimenari loturik sortzen diren ezusteko auziak ahalik eta ondoen konpontzea, gero Batzar Orokorrari agertzen zaizkiola gertatutakoak eta egindakoak.
- i) Batzar Orokorrari ez dagokion beste edozein.

21. artikulua.- Lehendakariak edo Idazkariak erabakitzen duten adina aldiz egingo ditu bilerak Zuzendaritza Batzordeak, bai bere ekimenez, bai Batzordeko norbaitek eskaturik eta beti ere hilabetearen behin elkartuko dira.. Lehendakaria arituko da buru, eta, hura ez badago, Idazkaria; biak falta badira, Batzordeko zaharrena. Lehendakariordezkorik balego hau izango litzateke lehendakariaren ordezkapena egiteko arduraduna.

Batzordearen akordioek balio izateko, agertutako gehienen botoa behar da, eta gutxienez kideen erdiak egotea. Lehendakariak kalitateko botoa izango du berdinketa kasuetan.

Idazkariak bileren akta jasoko du, eta hura, dagokion Liburura aldatuko.

LEHENDAKARIEN BATZORDEA

22. artikulua.- Lehendakariaren Batzordean Elkartearen azken hamar lehendakariak egongo dira, egungoa barne.

23. artikulua.- Lehendakariaren Batzordeak ez du erabakitzeko ahalmenik izango, Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza Batzordearen organo aholku-emaile eta kontsultarako hutsa baita. Kasu berezietan bakarrik hartuko du parte: Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak gai bat bereziki garrantzitsutzat jotzen dutenean, Elkartea hobeto argiturik eta ordezkaturik egotea nahi denean.

24. artikulua.- Une horretan Lehendakari ari dena izango da Lehendakariaren Batzordearen buru eta deitzaile.

25. artikulua.- Haren bileretara kideen erdia gehi bat agertzea aski da hura legez osaturik egoteko, eta gehiengo sinplez hartuko dira akordioak.

26. artikulua.- Lehendakariak Ezohiko Batzar Orokorra deitu beharko du, Lehendakariaren Batzordeak akordio hori hartzen badu.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

LEHENDAKARIA

27. artikulua.- Elkartearen Lehendakariak Elkartearen lege-ordezkaritza hartzen du bere gain, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako akordioak gauzatuko ditu. Bi organo horien buru da Lehendakaria.

28. artikulua.- Lehendakariari dagozkio (haren eskumenak ez badira berariaz Zuzendaritza Batzordearentzat edo Batzar Orokorrarentzat gorde) ondoko hauek:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egindako bilerak deitzea eta amaitzea, haien deliberazioak zuzentzea, kalitateko botoa erabiltzea berdinketa gertatuz gero.
- b) Elkartearen jarduera-plana proposatzea Zuzendaritza Batzordeari, hango lanak bultzatzen eta zuzentzen dituela.
- c) Legez onartutako ordainketak agintzea.
- d) Premiazko auziak konpontzea, eta egiten den lehenengo bileran ematea haien berri Zuzendaritza Batzordeari.
- e) Bazkide berriei giltzak, bazkide-agiria, Estatutuak eta Barne Erregimen Araudia ematea, eta, halaber, Elkartearen ibilera azaltzea.

LEHENDAKARIORDEA

29. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariak ordezkatuko du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

30. artikulua.- Idazkariari dagozkion eginbeharrak: bazkide egiteko eskariak jasotzea eta tramitatzea, Bazkideen fitxategiaz eta Erregistro Liburuaz arduratzea, Akta Liburua zaintzea eta idaztea; Lehendakariari laguntzea edo hura ordezkatzea, hark karguan aritzerik ez duenean; gainera, Lehendakariak berariaz ematen dizkion eskumenak erabiltzea.

Era berean, elkarteen alorrean indarrean dauden lege-xedapenak betetzeaz arduratuko da, beti Elkartearen agiri ofizialak zaintzen dituela, Elkartearen Liburuetako eta artxiboetako edukiak ziurtatzen dituela, eta agintari eskudunari helarazten dizkiola (dagokion bezala) bai Zuzendaritza Batzordeetako izendapenak bai Elkartearen egoitza aldaketak.

Gainera, egindako sarreraren eta ordainketen berri emango du, urteko sarreraren eta gastuen aurrekontua formalizatuko, eta berdin aurreko urteko kontuena, zein Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar baitaizkio, hark, bere aldetik, Batzar Orokorraren onarpenera mendera ditzan.

DIRUZAINA

31. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, era horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BOKALAK

32. artikulua.- Bokalek beren karguei dagokien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

HIRUGARREN KAPITULUA



BAZKIDEEZ: ONARTZE-PROZEDURA ETA MOTAK

33. artikulua.- Edonor bihur daiteke Elkarteko kide, nahi baldin badu eta ondokoak betetzen baditu:

- Adinez nagusi izatea eta gai izatea.
- Ohizko bazkide batek bazkidegai gisa aurkeztea.
- Zuzendaritza Batzordeak zain daudenen zerrenda sartzea onartzea.
- Sartzeko unean indarrean dagoen kuota ordaintzea. Kuota hori Batzar Orokorrak ezartzen du Zuzendaritza Batzordeak iradokita.

34. artikulua.- Bazkide motak:

-OHIZKO BAZKIDEAK: Beren ekarpen ekonomikoa osoki egina dutenak eta kuoten ordainketan egunean daudenak. Batzar Orokorra osatzen dute eta hitza eta botoa dituzte (berauek ez badaude, haien ezkontideak Batzarrean izango dira, hitzarekin eta bozkarekin, beti ere beraien ordezkaritza adierazten dutela bazkidearen sinadurarekin). Ohizko bazkideak beharturik daude Zuzendaritza Batzordean aritzera, hark eskatzen badie eta aurrez inoiz ez badira hartatik igaro, baina Batzar Orokorraren onarpena behar da horretarako. Ohizko bazkidearen botoa harena da bakarrik, ez beste inorena.

-BAZKIDE ERRETIRATUAK edo JUBILATUAK: 65 urte beteta dituzten bazkideak izango dira, Zuzendaritza Batzordearen onarpena jaso ondoren eta betiere bazkide berri bat aurkezten badute. Beste bazkideek ez bezalako trataera jasoko dute beren eskubideei eta betebeharrei dagokienez, eta badute hitzik, baina botorik ez Batzar Orokorratan, ordaindu beharreko ohizko eta ohiz kanpoko kuotari buruzkoak diren botazioetan, ordea, badute botoa.

-BAZKIDE BABESLEAK: Elkartek, Batzar Orokorrean, Zuzendaritza Batzordeak iradokirik, bazkide babesle izaera eman ahal izango dio, aldi zehatz batez, Elkartearen esker ona irabazi duen pertsonari, pertsona horrek Elkarteari egin dizkion ekarpen eta emaitza bereziengatik. Bazkide berezi horien izaerak ez dakar berekin Elkarteko kide izatea, ez eta Elkartearen Gobernu eta Administrazio organoetan aritzeko eskubiderik ere. Bazkide babeslea libre da betebehar guztietatik. Ez du ez hitzik ez botorik Batzar Orokorrean.

-OHOREZKO BAZKIDEAK: Elkartek, Batzar Orokorrean, Zuzendaritza Batzordeak iradokirik, ohorezko bazkide izaera eman ahal izango dio, bizi guztirako, bere gizarte edo kultur lanagatik nabarmendu den pertsonari. Bazkide horien izaera ohorezkoa da huts-hutsik, eta, beraz, ez dakar berekin Elkarteko kide izatea, ez eta Elkartearen Gobernu eta Administrazio organoetan aritzeko eskubiderik ere. Ohorezko bazkidea libre da betebehar guztietatik. Ez du ez hitzik ez botorik Batzar Orokorrean.

Nahiz bazkide babesleak nahiz ohorezko bazkideak izendatzeko, ezkutuko bozketa beharko da, eta beharrezkoa izango da gai hori erabiliko den Batzar Orokorrean presente daudenen bi herenen (2/3) aldeko bozka izatea.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

35. artikulua.- Bazkide ororen eskubideak:

- 1) Elkarteen Legearekin eta Estatutuekin bat ez datozen akordioen eta ekintzen aurka egin dezake, akordio edo ekintza desgoki horien edukia ezagutu eta 40 egun naturaleko epean.
- 2) Elkarteko gainerako kideen nortasuna ezagutzeko eskubidea du noiznahi, nahiz sarreren eta gastuen egoera, nahiz Elkartearen jardueren berri.
- 3) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako Bazkide Fitxategian ipin dezake bere izena, eta Elkartearen ikurra erabil, baldin bada.
- 4) Estatutuen eta Barne Erregimeneko Araudiaren kopia bana eduki dezake, baldin bada, eta eskariak eta kexuak ager ditzake zuzendaritza organoen aurrean.
- 5) Elkartearen taldekako ekintzetan jardun dezake, eta bazkide guztien erabilerarako dauden elementuez (egoitza, sukaldea, telebista-gela) goza, Zuzendaritza Batzordeak kasu bakoitzerako xedatutakoaren arabera.

- 6) Idatziz entzun diezaioten eskubidea du, Elkartek beraren aurka diziplina-neurririk hartu aurretik, eta haiek zergatik hartuko diren jakiteko eskubidea halaber, neurriok bazkide-betebeharrak ez betetzeagatik bakarrik izan baitaitezke.
- 7) Bazkide batek borondatez elkartetik bereizten bada eskubidea izango du dagokion ondareko partehartzea jasotzera. Partehartzea ohizko kuotetatik kanpo izandako ekarpenek osatuko dute eta beti ere ondarea gutxitzeak hirugarrenei eragozpenik sortzen ez badiete jaso ahal izango du.

Bestalde, bakarrik ohizko bazkideen eskubideak izango dira ondorengoak:

- 1) Hitza eta bozka erabil ditzake Batzar Orokorretan, edo beste bazkide batzuei eman diezaieke bere ordezkaritza, xede horretarako.
- 2) Elkarteen zuzendaritza organoetan har dezake parte (egungo Estatutuen arabera), bertan hautatzaile eta hautagarri dela aldi berean.

36. artikulua.- Bazkide ororen betebeharrak:

- a) Gogoz aritu behar du Elkarteen helburuak iristen laguntzeko.
- b) Bere zatia ipini behar du gastuei aurre egiteko, Batzar Orokorrak ezarritako kuotak ordaindiz.
- c) Egungo Estatutuak onartu eta bete behar ditu, bai eta Elkarteen zuzendaritza organoek legeztartutako akordioak ere.
- d) Onartu egin behar ditu, ezinik ezean, Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak eman dizkieten karguak.
- e) Txukun-txukun idatzi behar ditu kontsumitutakoen kostuak eta erabilitako ondasunenak.

ZIGOR ERREGIMENA

37. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak zigortu egin ditzake bazkideak, haiek behin eta berriro urratzen badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorraren nahiz Zuzendaritza Batzordearen akordioak.

Zigorrik txikiena 15 egunetik hilabeterainoko eskubideen kentzea izan daiteke, eta handiena, Elkartetik betiko botatzea, 39. artikulutik 42ra (biak barne) aurre ikusten den bezala.

Horretarako, Lehendakariak ikerketa bat hasteko agin dezake, zigorgarri izan daitezkeen jokoerak argitzeko. Idazkariak egingo ditu egiteko guztiak, eta neurri egokiak hartzeko eskatuko dio Zuzendaritza Batzordeari. Zuzendaritza Batzordeak du zigorrak ezartzeko esku, baina interesatuari entzun behar dio lehenik.

Akordio (beti motibodun) horren aurka, helegitea aurkez daiteke Batzar Orokorraren aurrean, 35. artikuluan aurreikusitako ekintzak egitearen kalterik gabe.

BAZKIDE IZAERA GALTZEA

38. artikulua.- Bazkide izaera honakoetan galduko da:

- 1) Heriotzagatik. Kasu horretan, legeko oinordekoek itzultzea eska dezakete, baja bat edo borondatezko banatze bat gertatu bailitzan, edo hildakoaren eskubideak haren senitarteko bati (hirugarren mailaraino) transmititzea. Transmisioaren aukera hobetsiko balute, bazkidegai berriak Zuzendaritza Batzordearen onspena beharko du, bazkidegai hori ezkontidea edo seme-alaba bat ez bada behintzat, horiek automatikoki bereganatzen baitute bazkide izaera, nahi izanez gero. Hala ere, edozein kasutan, oinordekoek beraien nahiak azaldu beharko dizkie Zuzendaritza Batzordeari eta beharrezko diren datu guztiak eguneratu jarraitzea nahi izanez gero.
- 2) Bere borondatez irteteagatik. Irtendakoak senitarteko (hirugarren mailaraino) bati pasa diezazkioke bere eskubideak, hark Zuzendaritza Batzordearen onspena badu. Edo bere gogoz baja eskatzeagatik, zein onartu egingo baita, hura beste bazkide batez betetzerik bada. Baja hori onartzen bada, indarrean dagoen sarrera-kuotaren $\frac{3}{4}$ itzuliko zaio bazkide ohiari.
- 3) Zigortu eta bota dutelako, Zuzendaritza Batzordekoek, bazkideak Estatutuetatik eta Batzar Orokorrak zein Zuzendaritza Batzordeak legeztartutako akordioetatik datozen betebeharrak betetzeari behin eta berriz, nahita eta modu larrian uko egin dionean.

39. artikulua.- Baldin eta bazkide batek aurreko atalean aipatzen den azkenekoa egin badu, Lehendakariak agin diezaioke Idazkariari egiteko aurrez zenbait urrats, behar den informazioa lortzeko, eta, informazio horrekin, Lehendakariak agin dezake, edo egindakoak urratsak artxibatzeko, edo zigor-espediente bat irekitzeko 34. artikuluan aurreikusitako eran, edo botatze-espedientea hasteko.

Azken kasu horretan, Idazkariak, aurrez egitateak egiaztaturik, idazki bat helaraziko dio interesatuari, egozten zaizkion karguekin, eta hark egoki deritzona erantzun ahal izango du bere alde, hilabeteko epean. Epe hori igarotakoan, edozein kasutan, auzia Zuzendaritza Batzordearen lehen bileran aztertuko da, eta hark dagokiona erabakiko du, kideen hirutik biren quorumaz.

40. artikulua.- Botatze-ebazpena interesatuari jakinaraziko zaio, esaten zaiola, halaber, helegitea jar dezakeela ebazpenaren aurka lehen Batzar Orokorraren aurrean ordu arte, Lehendakariak agin dezake kentzeko erruztatuari bere bazkide eskubideak, eta baldin eta erruztatua Zuzendaritza Batzordean badago, Lehendakariak karguan aritu ezina ezarriko dio.

Baldin eta botatze-espedientea Batzar Orokorrera eramaten bada, Idazkariak haren laburpena idatziko du, Zuzendaritza Batzordeak erruztatuaren idazkiaren berri eman diezaiola Batzar Orokorrari, eta berri zehatza eman diezaiola, halaber, kasuko gertaerez, Batzarrak, gero, dagokion erabakia har dezan.

41. artikulua.- Botatze-erabaki beti motiboduna interesatuari jakinaraziko zaio, eta hark Auzitegietara jo dezake dagokion eskubidea erabilita, botatze-erabakia Legeen edo Estatutuen aurka dela iruditzen baldin bazaio.

42. artikulua.- Bazkide bati beraren gogoz edo zigorragatik Elkartetik kanpo dela jakinarazten zaionean, eskatuko zaio bete ditzala Elkartearekin betetzeke dituen betebeharrak, baditu, eta itzul dezala Elkarteko giltza.

LAUGARREN KAPITULUA

ELKARTEAREN ONDAREA ETA AURREKONTU ERREGIMENA

43. artikulua.- Elkartearen ondarea 131.503,49 euro da.

44. artikulua.- Elkartek honako diru baliabideak aurreikusten ditu bere jarduerak aurrera eramateko:

- a. Batzar Orokorrak ezartzen dituen sarrera-kuotak.
- b. Horrek berak ezartzen dituen aldizkako kuotak.
- c. Ondasunen eta eskubideen emaitzak, hala nola legez jaso ditzakeen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d. Elkartek (Zuzendaritza Batzordeak erabakita eta Estatutuen helburuen barruan) egiten dituen jarduera beti legezkoetatik datozkeen diru sarrerak.
- e. Elkartek bereganatzen dituen diru baliabideak ezingo dira sekula bazkideen artean banatu.
- f. Elkartek eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETAZ

45. artikulua.- Estatutuen eta barne Erregimen Araudiaren aldaketa, izanez gero, Zuzendaritza Batzordearen ekimenez egin daiteke, edo hark erabakirik baita, izena emandako bazkideen herenak eskatzen badu. Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako talde txostengilea izendatuko du, hark aldaketa-proiektua idatz dezan, eskatzaileek ezarritakoaren ildotik, eta aipatutako proiektua bukatzeko epea ezarriko du.

46. artikulua.- Aldaketa-proiektua ezarritako epean idatzi denean, Lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen lehen bileraren Gai-zerrendan sartuko du, eta Zuzendaritza Batzordeak onartu egingo du proiektua, edo, bestela, talde txostengilera itzuliko, berriro aztertzeko.

Aldaketa-proiektua onartua balitz, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Ezohiko Batzar Orokorraren Gai-zerrendan sartuko du, edo Batzar hura egitea erabakiko berariaz, hark gaia azter dezan.

47. artikulua.- Batzarraren deia Estatutuen (edo Barne Erregimen Araudiaren) aldaketa-testua gehituko zaio, bazkideek egoki iritzitako zuzenketak igor ditzaten Idazkaritzara, eta zuzenketa horiek Batzar Orokorrari aurkeztuko zaizkio, beti ere Idazkaritzaren esku badaude bilera hasi baino zortzi egun lehenago.

Banakoek edo taldeek egin ditzakete zuzenketak. Zuzenketak idatziz aurkeztuko dira, eta testu alternatibo batez lagundurik beti.

Zuzendaritza Batzordeak aztertu egingo ditu bazkideengandik jasotako zuzenketa guztiak, eta bateratu egingo antzekoak, ahalik eta bozketa gutxien izan dadin.

Ez da eztabaidatuko, inolaz ere, hemen azaldutako eran aurkeztu ez den zuzenketarik

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEAZ ETA ELKARTEAREN ONDAREAREN ERABILERAZ

48. artikulua.- Elkartea ondokoengatik desegingo da:

- 1) Bazkideen borondatez, berariaz deitutako Batzar Orokorrean adierazita, agertuen gehiengoaren aldeko botoaz.
- 2) Kode Zibileko 39. artikuluan zehaztutako kausengatik.
- 3) Epaile epai bategatik.

49. artikulua.- Elkartea deseginez gero, desegite hori erabakitzen duen Batzar Orokorrak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, Zuzendaritza Batzordetik ateratako hiru kidez osatua, eta hura arduratuko da hor diren ondasunez.

Elkartea hirugarrengokiko eta bazkideekiko betebeharrak bete ondoren, Elkartearen gainerako ondarea, balego, ongintza eta gizarte helburuetarako erabiliko litzateke, helburu hauek horretarako deitutako Batzar Orokor baten xehetuko zirelarik eta ezingo litzateke soberan gelditutakoaren irabazi asmorik gabeko izaera aldatuko edo bestela beste irabazi asmorik gabeko beste erakunde bati emango litzaioke.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Zuzendaritza Batzordeari dagokio Estatutu hauetako aginduak interpretatzeko eta haien hutsuneak betetzeko eskumena, beti Elkartearen alorreko egungo legeria errespetatzen duela, eta beti lehenengo Batzar Orokorrari jakinarazten dizkiola, hark onar ditzan.

BIGARRENA.- Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak (zeinek bere eskumenez eta Bosgarren Kapituluari jarraiki) legez hartzen dituzten akordioen bidez aldatuko dira egungo Estatutuak.

HIRUGARRENA.- Batzar Orokorrak Barne Erregimen Araudi bat onartu ahal izango du, egungo Estatutuen garapentzat, baina Araudi horrek ez ditu aldatuko inolaz ere Estatutueta dauden aginduak.

LAUGARRENA.- Testu osoko "bazkide" hitzaz gizonezko eta emakumezko bazkideez ari gara noski. Eta hala da beti pertsoenez ari garenean.

BOSGARRENA.- "Ezkontide" hitza darabilgunean, legez erregistratutako izatezko bikoteak edo urtebeteko elkarbizitza justifikatzen duten bikotekideak ere sartzen dira.

